

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko urtarrilaren 22a. IX. urtea. 2.468. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



700 korrikalari gaztek parte hartu dute Ero Etxe Krosean

Euria ez da oztopo izan, beste behin parte hartze handia izateko; lasterketaren balantze «oso baikorra» egin dute antolatzaileek 07



Parte hartzaileek gogotsu egin zuten korrika, igandean. J. MUJICA

Habanera berria prestatu du San Esteban elkarteak

Amaia Lizaso musikariak konposatu du Tolosako San Esteban elkartearen habanera; inauterietan estreinatzeko asmoa dute 02

→ **Gaztelurako errepidea itxita dago.** Aurreko asteko denboraleak izan du eraginik eskualdean. Nabariena Leaburutik Gaztelura doan errepidea hondoratu egin dela izan da. Horren ondorioz epe baterako itxita egongo da. Eguraldi aurreikuspenak ez du atsedenik iragartzen: gaur elur-maila 400 metrotara jaitsi daiteke. 03

CO2 isurtzeak %20 murrizteko plana aurkeztu du Tolosako Udalak

2020. urtera begirako plan estrategikoaren berri eman du udalak; murrizteko jarduera horiek udaleko sail guztiei eragingo die 02

Ibarra sokatira taldeak 640 kiloko lehen jardunaldia irabazi du

Goma gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketako kanporaketan zortzi tiraldiak irabazi eta gero, Ibarra sailkapeneko lehen postuan dago 06

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

Saiaz hotelean lo egin eta Balenciaga museoa bisitatu

89€ Prezioa

www.mauka.eu berria

2020rako CO2 isurtzeak %20 murriztu nahi ditu Tolosako Udalak

Plan estrategikoa aurkeztu dute horretarako, udaleko sail guztiei eragingo dien jarduerekin

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako Udalak, 2020. urtera begirako energia plana aurkeztu berri du; zazpi urte barru, isurtzen den CO2 kopurua %20 murriztea da, besteak beste, planaren helbururik behinena.

2007an egindako ikerketa da, egitasmoaren oinarria; Negutegi Efectua sortzen duten Gasen (NEG) isurtzeak neurtu zituzten, diagnostiko bat egin ahal izateko. Guztira, 84.000 CO2 tona isuri ziren Tolosan; biztanle bakoitzak 4,7 tona CO2, beraz.

Kopuru hau Euskal Autonomia Erkidegoko balioen erdi aldean dagoen arren, Hasier De los Rios zinegotziak, berez goruntz egingo

zukeela dio: «2007a erreferentzia-tzat erabili dugu, krisirik artean ez zegoelako; ohiko egoera baten isla izan zen, horrela, urte hura. Beraz, gaur egun isurtzen den CO2 kopurua baxuagoa den arren, datozen urteotan 2007koa gainditzea aurreikusten dugu, neurririk hartu ezean».

Plan estrategikoa abian 2007ko diagnostikoaren bidetik, ondorioak kontuan izanda sortu dute, jarduera zerrenda. Ardura-

Europar Batasunak sustatutako Alkateen Ituna da, plan honen aurrekaria

dunek, planak udaleko sail guztiei eragingo diela nabarmendu dute, baina baita herritar eta enpresei ere.

Sei dira guztira, jardueren bidea markatuko duten ildoak: eraginkortasun energetikoa, mugit



Jarraipen mahaia osatu dute adituekin, eta herritarrek ere iradokizunak egin ditzakete. HITZA

kortasun jasangarria, energia berri-erregulagarriak, hondakinen sorkuntza eta kudeaketa, ura eta inguru naturala. Arlo hauetan guztietan eraginez, 2020. urtean 14.000 tona CO2 gutxiako isuriko lirateke, planaren arabera.

Aipatzekoa da, 2011n Europar Batasunak abian jarritako Alkateen Ituna dela energia planaren aurrekaria, eta Euskal Herrian 14 udal soilik daudela egitasmo honen barruan; eskualdean, Amezketara ere helburu hauen alde lanean ari da.

Joan den astean, energia plana herritarrei aurkeztu zieten, eta jarraipen mahaia osatu dute. Ibai Iriarte azaldu duenez, «lantalde-

an jende aditua dago. Hala ere, irekita dagoen zerbaite da, eta tolosarrek ekarpenak egin ditzakete». Horrela, www.tolosainguru-mena.net webgunean planaren

zehaztapenak ezagutu daitezke, eta iradokizunak egiteko, berriz, 943 69 75 21 telefonoa edo inguru-giro@tolosakoudala.net helbidea erabili ahal izango dira.

↓ Planaren ildo nagusiak

Eraginkortasun energetikoa.

Energia probestu: argiztapena, leihoen isolamendua,...

Mugikortasun jasangarria.

Ibilgailu motordunen erabilera gutxitu.

Energia berri-erregulagarriak. Plaka fotovoltaikoak eta termikoak jarri; CO2 jaitsi eta energia ekoiztu.

Hondakinak. Gaikako bilteta sustatu, zabor gutxiago sortu; CO2 %45 gutxituko litzateke.

Ura. Ur hornidura sarea berritzea eta euri urak aprobetsatzea. CO2 isurtzea %11 jaitsiko litzateke.

Inguru naturala. Landaredia eraberritu, CO2 xurgatzen da, eta bizi kalitatea ere hobea da.

San Esteban elkarteak habanera berria aurkeztu du

Amaia Lizaso musikariak konposatu du, eta datozen inauterietan estreinatuko dute

I. Urkizu Tolosa

Tolosako San Esteban elkarteak aurkeztu du, jada, datozen inauterietan kalez kale entzun ahal izango den habanera berria. Amaia Lizasok konposatutako pieza, elkartearen bertan eskaini

zuen San Esteban Txarangak, pasa den ostiralean.

Agerraldian, elkartearen lehendakari Ramon Ortiz, Amaia Lizaso bera eta Jon Etxabarri txarangako ordezkaria izan ziren, eta Ibai Iriarte alkatea ere bertaratu zen. Besteak beste, elkartearen historiari erreparatu txikia egin zioten, San Estebango kalejira Ignacio Mokoroak 1969. urtean sortu zuela nabarmenduz; hitzak, berriak, Estanislao Urruzola *Urola*-renak dira: «Jendeak kalean ez du San Estebango abestia kantatzen, eta guk geuk ere ez dugu ohi-

tura handiegirik izan. Horrela, iaizko inauterietan hasi ginen horri garrantzia emanez, jendeak le-



«Habanerarekin, nire familiako tradizioa jarraitzen ari naizela dirudi»

AMAIA LIZASO
Musikaria

tra ikas dezan. Mendia, pelota eta inauteriak alpatzen ditu», azaldu zuen Etxabarri.

Horrela beraz, abesti bat bazuten arren, beste bat ere izateko grinaz zeuden San Estebango kideak, eta Amaia Lizasori proposamena egin zioten, San Estebango abestia den senarrerarekin han bertan afaltzen ari zela.

↓ Iragarki laburrak

LANESKAINITZA

Estetizista. Tolosan lan egiteko, estetizista bat behar dugu. Aurretik esperientzia izateari



San Esteban txarangako kideek zuzenean eskaini zuten habanera. I. URKIZU

Lehendik ere Tolosako inauterien errepertorian bere alea utzitakoa da Amaia Lizaso, eta besteak beste, Oargi elkartearen ereserki bere lana da. Azaldu zuenez, bere arbasoen bidea jarraituz doa: «Habanerarekin, nire familiako tradizioa jarraitzen ari naizela dirudi, nire aitona Guillermo

Lizasok egin baitzuen Ero Etxeko kalejira». Melodia nagusia sortu eta gero, lankide duen Angel Brizekin elkarlanean aritu da Amaia Lizaso, instrumentazioa prestatuz. Bide horretan, txaranga guztiek pieza berriaren partitura dute jada, eta beraz, bi aste barru abestia plazaratzea soilik falta da, benetan ofizial egiteko. Abestiak oraindik letrarik ez duen arren, hurrengo urterako pieza abestu ahal izatea espero dute.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Leaburutik Gaztelura doan bidea itxita dago

Bidegoianera joateko errepidea itxita egon zen igandean; elur-mailak behera egingo du gaur

Imanol Garcia Landa

Denboralearen eraginak izan dira asteburuan eta alderik txarrean gazteluarrek jaso dute. Leaburutik Gaztelura doan errepidea itxita dago. Bi udaletako ordezkariak izan ziren atzo goizean Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin, eta errepidea konpondu eta irekitzeko epeak luze joko dutela azaldu dute azken horiek. Ez dute data jakin bat eman, baina hilabete izan daitekeela esan dute. Aste honen amaierarako, irtenbidea zein izan daitekeen azalduko dutela esan diete bi udalei aldunditik.

Ostegun gauean hondoratu zen zertxobait errepidea, eta ostiralean aritu ziren aldundiko teknikariak behin behinean konponetzen. Larunbat gauean, ordea, berriro hondoratu zen, eta oraingoan zuloa handitu egin zen. Ez dago behin behineko irtenbide bat ematerik errepide horretan, oso ezegonkor dagoelako zorua. Beraz, Gaztelura joan edo bertatik ateratzeko Lizartza alde-ra jo behar dute autoek, mendiko pista bat hartuz. Bide horrek aldapa handiak dituelako, ibilgailu handientzako Orexara joateko bidea egokitzeko lanetan aritu behar zuten atzo arratsaldean aldundiko teknikariak.

Bestalde, Tolosatik Bidegoianera doan errepidea itxita egon zen luizi baten ondorioz igandean. Santutxu igaro ondoren dagoen gainean, zubiaren inguruan, gertatu zen. Sei metro inguruko lur pareta erori zen eta bi bideak hartu zituen. Azpeitira joan nahi zutenek Beizamako bidea hartu behar izan zuten, eta Bidegoianetik Tolosara joateko Elola bailaratik joan behar izan zuten, gero



Leaburutik Gaztelura doan errepidea, hondoratuta. I.G.L.



Piraguarekin jolasean aritu dira asteburuan Oria ibaian, Tolosan. E.G.

Santutxu aldean errepide nagusia hartzeko.

Euritearen eraginaren beste aurpegia asteburuan ikusi zitekeen Oria ibaian. Izan ere, hainbat piraguista aritu dira jolasean ibaian sortutako olatuekin, Nafarroako zubiaren azpian.

Elur-maila, 400-600 metrora
Euskalmet agentziaren arabera, gaur elur-mailak behera egingo du. Zaparrada mardulenak eguerditik aurrera espero dira, fronte bat pasatuko baita. Kan-

tauri isurialdean trumoiak jo dezake eta txingorra ere egin dezake. Egoera horrekin, elur-mailak ere behera egingo du egunean zehar; 900-1.000 metrotik abiatu eta eguna amaitzerako 400-600 metrora kokatuko da. Eguraldi ume-la, haizetsua eta hotza izango dela esan du Euskalmetek.

Bihar euri gehiago izango dela azaldu du eta zaparradak nonahi eta noiznahi botako dituela. Elur-maila 400-600 metro inguruan kokatuko da eta egun amaierarako 800-900 metro ingurura igoko da.

Maila aurreratuko sukaldaritza ikastaroa, aukeran

Izena hilaren 24a baino lehen eman behar da Villabonako Udaleko kultura sailean; hilaren 28an hasiko da

E. Maiz Villabona / Zizurkil

Villabonako eta Zizurkilgo udalek maila aurreratuko sukaldaritza ikastaroa antolatu dute. Hilaren 28an, astelehenean hasi eta martxoaren 4an bukatuko da. Villabonako Irrintzi elkartearen izango da, eta ikastaroaren barnean, ardoa eta gazta dastatzen ikasteko saioa ere izango da.

Edonork parte hartu dezakeen arren, ikastaroari ahalik eta probetxu gehien ateratzeko zerbaitez jakin behar dela aurretik jakinarazi dute antolatzaileek. Izena hilaren 24a baino lehen eman behar da Villabonako Udaleko kultura sailean. Sukaldaritza tradizionalean oinarrituta dago programa, baina berrikuntzetarako tartea ere izango du, eta errezeta berri-zaileak ere landuko dira.

Astelehenean eta asteazkenean izango dira saioak, 19:00etatik 21:00etara. Amasa-Villabonako eta Zizurkilgo errodututa daudenean 58 euro ordaindu beharko dute, eta 75 euro kanpokoek. Plaza mugatuak izango dira.

→ Laburrak

Aisa taldean izena emateko azken egunak

ANOETA ▶ Euskara ikasteko Aisa taldea osatu dute Anoetan, eta izena emateko azken egunak dira. Taldearen martxa gehiegi moteldu nahi ez dutenez, hilak 24, osteguna, jarri dute azken eguna. Epe horretatik aurrera, Aisa taldean sartzeko interesa agertzen dutenekin zerrenda bat osatuko dute.

Izar Arregiren hitzaldia izango da, larunbatean

ALKIZA ▶ Izar Arregi psikologo eta psikoterapeutak *Familiako lanbidetza sustatzeko* hitzaldia eskainiko du, larunbatean, Alkizako Don Juanena etxean. 17:00etan izango da, Alkizako Amañili Emakumeen Elkarteak antolatuta. Familiako etxeko lanen eta familiako harremanen inguruan berdintsuna eta elkar errespetuan oinarritutako jarrerak bultzatzea du helburu.

Villabonan AEK Korrika batzordearen bilera egingo dute, gaur

Amasa-Villabonako udaletxeko erabilera anitzeko gelan da bilera, 19:00etan; Korrikaren inguruan hitz egingo da

E. Maiz Amasa-Villabona

Gaur, hilak 23, AEK Korrika Batzordeak bilera egingo du Amasa-Villabonako. Martxoaren 14tik 24ra ospatuko da aurtengo Korrika eta, urtero moduan, beste behin, herritik pasako da. Antolaketaz eta beste hainbat xehetasunen inguruan hitz egingo da, eta Villabonako Udalak euskaltzaleei dei egiten die gaur izango den bilera parte hartzeko.

Bilera 19:00etan izango da, Villabonako udaletxearen erabilera anitzeko gelan.

Denboralearen argazki lehiaketa

Bidali Tolosaldean eta Leitzaldean ateratako denboralearen argazkiak:
tolosaldean@hitza.info
*argazkien gutunbeteak: 20 cm-ko zabalera eta 300ko bereizmena
 Parte hartzaileen artean Hitzaren materialez osaturiko sorta zozkatuko dugu

TOLOSALDEKO hitza eta **LEITZALDEKO hitza**

PREST
MONDRAGON
 UNIBERTSITATEA

001 ETAPOLA POLITIKORRIA
 02 ETAPOLA POLITIKORRIA
 03 ETAPOLA POLITIKORRIA

ATE IREKIRAK
Goierriko campusa

INGENIARITZA - URTARRILAK 24
 osteguna, 17:30 ORDIZIA

IPAD erabil **IRABAZI**
 Ingeniaritzagoierrin.com

902 110 436
 WWW.MONDRAGON.ES/PREST

Villabona-Tolosa



ZELARAIN ASKE ETA ODRIOZOLARENA ALDARRIKATZEN

Villabonako Pello Zelarain euskal preso ohia da jada. Pasa den ostiralean iritsi zen herrira eta 04:30ak inguru baziren ere herriko plazan herritar asko bildu ziren ongi etorria egiteko. Bere lehen hitzak, eskerrak emanaz, bertaratu zirentzat izan ziren; ondoren, bere askatasuna ospatzeko topa egin zuten. Zelarainek 26 urte egin ditu hermetik urrun, azken hamabostak espetxean. Emaztea (argazkian Zelarainaren ondoan) eta alaba ondoan zituela iritsi zen bere herrira. Bestalde, Tolosan, larunbat goizean, Pello Odriozolaren askatasuna eskatzen zuten argazkia ateratu zuten hainbat herritarrek. Preso tolosararak 25 urte egingo dituzte urtarrilaren 28an kartzelan. Egun horretan manifestazioa egingo dute 10:30ean Trianguloatik abiatuta. 2008an behar zuten kalean, balina Parot dotrina ezarri eta espetxean da oraindik A.I. E.C.

Tolosa



EKITALDI SINBOLIKO

Tolosaldeko Osasun Publikoaren Aida koordinakundak deituta herritar asko ateratu ziren larunbat goizetan kalera osasun publiko aldarrikatzeko. Trianguloatik abiatuta giza katea egin zuten lehenengo, eta gero, espesialitateen ambulatarioa joan ziren erakinarri besarkada sinbolikoa emateko. tolosaldeko hitza.info, albiste honekin batera, ikusi dagoen TORAK egindako bideoa. [A. G. U. O.](#)

Anoeta



TXOLARREREN PUNTAKO BERTSO SAIOA

Larunbatean bertsozaleen topaleku izan zen Leidor aretoa, eta eseriak guztiek bete zituen. Eskualdeko eskarzak irabazteko, Tolosarak, Tolosako Udalaren laguntza, laugarrenez egin zuen bertso jaialdia eta bertsoleak puntako saioa eskaini zuen.

Leaburu-Txarama



SAN SEBASTIAN EGUNA

San Sebastian eguna izan zen herenegun eta Orendain, Berastegi eta Leaburu-Txaraman ospatu zuten. Hiru herrietan meza berriak hasi zuten eguna, eta Leaburu-Txaraman eta Orendainen herritarrek hamaketakoa dastatzeko aukera izan zuten. Leaburu-Txaraman ostaturan izan zituzten ekitaldiak, bai hamaketakoa eta bai herriko dantzarren saioa (lehen india) ere, lehenago, haia ere, meza izan zuten (bigarren india). [A. G. U. O.](#)

Ibarra



MOTOTSAK EGITEN IKASI DUTE

Alum dantza eskolak mototsak egiten ikasteko klastarok eskaini zuten larunbat goizean. Eskolako arduradunek esan dute: «oso ondo egon zen eta denekak galdere ugari egin zituen». Azalpenak eman eta gero, bertaratutakoek praktikak egiteko aukera izan zuten. Bestalde, ostiralean turminko daka-rena ikusiz eta bertsoleak dute kiroldegian, Izturperen kultur estereon barnean, olean, 20:30etik aurrera. [A. G. U. O.](#)

harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Zabala Sagardotegia
 Bi laguntzako bazkari edo afaria
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**
 Garagartza baserria
 Aduna
 Tel.: 943 69 07 74
www.zabala.com

2 Isastegi Sagardotegia
 Bi laguntzako bazkari edo afaria
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**
 Aldaba Txiki, 15
 Tolosa
 Tel.: 943 65 29 64
www.isastegi.com

3 Sarasola Sagardotegia
 Bi laguntzako bazkaria
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**
 Asteasu
 Tel.: 943 69 02 83

4 Donostiako Aquariuma
 Bi laguntzako bina sarrera
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**
www.aquariumos.com

Parte hartzeko deitu edo izartu: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** (harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeinekaintzetan parte hartu nahi duzun guri adierazi) www.tolosaldeko-eta-leiztaldeko-hitza.info (harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeinekaintzetan parte hartu nahi duzun guri adierazi)

hitza

Tolosan etxe odolotuz saigai:
 eguzki, laur, gela, bi burugela, komuna, egongela-hongela handia, sukaldaria, bi outhentzako gongora, teiloa, jardina eta trasterak.

www.zabala.com
913 257457
herriko eskola

tolosaldea.hitza.info

2013ko URTEAREN HAZIEMENAREN KAMPANA

sartaketa

www.zabala.com

www.zabala.com

www.zabala.com

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA
 Euskalduna, Denona eta Denontzat

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Matrikulazio epea:
 urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

www.zabala.com
913 257457
herriko eskola

HAUR TXOKOA PUBLIKO BERRA
 7:30etatik 9:00ora

www.zabala.com

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

PILOTA
LEHEN MAILAKO BINAKAKO
TXAPELKETA

Ligaxka, 5. jardunaldia
Xala-Barriola 16
Bengoetxea VI-Beroiz 22

Hurrengo jardunaldia
Jaunarena-Barriola
Berasaluze VIII-Albisu
Bengoetxea VI-Beroiz
Titin III-Merino II

EUSKAL HERRIKO PILOTA
TXAPELKETA (Aurrera Saiaz)

Kadeteak

Oñatz (Aurrera Saiaz) 7
San Juan 18
Ion Ander-Gorka (A-S) 22
Zaramaga 7

Jubenilak

Aitor (Aurrera Saiaz) 9
Arrankudiaga 22
Egoitz (A-S) 17
Arkupe 22
Eñaut-Ion (A-S) 22
Zaramaga 2
Peru-Gaizka (A-S) 22
Agurain 9
Andoni-Xanet (A-S) 22
Amurrio 9

22 urte azpikoak

Ion (Aurrera Saiaz) 22
Amurrio 9
Eneko-Iñigo (A-S) 22
Danak Bat 8
Seniorrak
Ibai (Aurrera Saiaz) 22
Huarte 13
Iñaki (Aurrera Saiaz) 22
Lemoa 2
Ander-Koldo (A-S) 20
Atxarte 22
Xabier-Xabier (A-S) 9
Berriotxo 22

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA
16. jardunaldia

Ibarra - Santurtzi 2-2
Zarautz-Egintza TL 3-4
Aurrera-Laskorain 6-0
Buruntza-Tolosala H. 4-5
Sailkapena
1. Aurrera 39p
2. Ibarra 38p
3. Tolosala Hirukide 30p
4. Bilbo CFS 30p
9. Laskorain 21p
10. Egintza 19p

Hurrengo jardunaldia

Mallabia-Ibarra
Laskorain-Zarautz
Tolosala Hirukide-Aurrera
Egintza TL-Gora CD

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA
18. jardunaldia
Berio - Tolosa CF 3-1

Sailkapena

1. Hernani 40p
2. Real Union 39p
3. Aretxabaleta 36p
9. Tolosa 24p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF - Hondarribia

SASKIBALOA

LEHEN MAILA
14. jardunaldia
Tabirako-Bide Bide 60-74

Sailkapena

1. Asesoria Saf 12-2
2. Atletico Sn Sn 10-4
8. Bide Bide Donostia 7-7

Hurrengo jardunaldia

Bide Bide-Leihoak Zarautz

640 kiloko lehen jardunaldia irabazi du Ibarra sokatira taldeak

Lau txandak eta zortzi tiraldiak irabazi ostean sailkapen orokorreko lehen postuan dira ibartarrak

I. Terradillos Ibarra

Goma gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren bigarren saioa jokatu zuten iragan larunbatean Mungian. Gizonezkoen 640 kiloko lehen jardunaldia izan zen, eta Ibarra sokatira taldea suertatu zen garaile.

640 kiloko sailean hamar talde ari dira lehiatzen, bi multzotan banatuta. Ibartarrak lehen multzoan daude, eta larunbateko saioa lau txandak eta zortzi tiraldiak irabazi ostean, sailkapeneko lehen postuan kokatu dira, 5 punturekin. Multzo berean, Murueta eta Berriozarrek seina tiraldi irabazita, bigarren eta hirugarren postuan dira, 3,5 punturekin. Sokarrik lau tiraldi irabazi zituen, eta laugarren postuan dago, eta Abadiño B tiraldi bakarra irabazita bosgarren da puntu bakarrekin.

Bigarren multzoari dagokionez, Abadiño A eta Ñapurak taldeak gailendu ziren. Multzohonetako sailkapenari dagokionez, Abadiño A eta Ñapurak dira lehen bi postuetan, 4,5 punturekin. Zuraide hirugarren da, Iparralde laugarren eta 6 Conceyos bosgarren.

640 kiloko bigarren jardunaldia Idiazabalen jokatuko dute, datorren larunbatean, hilaren 26an. Hirugarren eta azken jardunaldia, berriz, otsailaren 9an izango da, Durangon. Ibartarrak, beraz, beste bi jardunaldi ditu, maila bera mantendu, eta garaipena eskuratzeko.

Jon Rekondo leitzarra ere finalaurrekoetarako sailkatu da

Otaegi zizurkildarrak eta Otaño ibartarrak igandean dute Binakako Aizkora Txapelketako lehen finalaurrekoa

I. Terradillos

Binakako Eusko Label Aizkolari Txapelketako azken kanporaketa jokatu zuten herenegun Doneztabeko (Nafarroa) pilotalekuan. Kanporaketaren ostean, eskualdeko beste aizkolari batek lortu du finalaurrekoetarako txartela,

Jon Rekondok. Orotara, beraz, hiru dira finalaurrekoetan ariko direnak, Otaegi zizurkildarrak eta Otaño ibartarrak osaturiko bikoteak taldeko lehen postuan zirenez lortua baitzuten txapelketan lehiatzen jarraitzeko txartela.

Jon Rekondok Iñaki Azurmendi beasaindarrarekin osatu zuen herenegungo saioan bikoa, Ander Erasun lesionaturik baitago. B taldeko Jose Mari Olasagasti igeldoa eta Donato Larretxea berarraren aurka jokatu zuten, eta 18:40ko denborarekin lehenak izan ziren. Aizkolari beteranok,

berri, 19:29ko denbora behar izan zuten euren lana bukatzeko. B taldeko bigarren postuan sailkatuta, beraz, aurrera egingo dute Rekondok eta Azurmendik.

Beste multzoari dagokionez, Aitzol Atutxa eta Ugaitz Muger-tza dira aurrera egingo dutenak, Azpilikueta eta Senosiain mende-an hartu eta gero. Multzo honetako Nazabal eta Zubiaga finalaurrekoetarako sailkatuak zeuden.

Lehen finalaurrekoa hurrengo igandean, hilaren 27an jokatuko dute. Otaegik eta Otaño Atutxa eta Muger-tzen aurka egingo dute, Iraetan, 17:00etan.

TOLOSALDEA
GOIMAILAKO I. H. INSTITUTUA

LANERAKO PRESTAKUNTZA
(Langile eta langileentzat)

IKASTARUA	ORDU	IBILIA	PREZIOA
5ta greko-latinezko iraketa	40	2013-01-29	
Aplikazio informatikoki sotozuzuneko aplikazioak (Powerpoint)	30	2013-01-30	
Txartel elektronikoko aplikazioak: aplikazioak iraketa eta aplikazioak grafikoa eta aplikazioak teknologikoak	40	2013-02-04	
FAGIRI CNR: teknika, produktua eta programazioa	30	2013-02-04	
Lehen mailako produktuen lanerakoak (MOL EDUKE)	30	2013-02-18	
Berrikuntza teknika berritzaile eragileko aplikazioak (Trenbideak, Presentziak...)	30	2013-02-23	
Aplikazio informatikoki eta aplikazioak	30	2013-01-30	
ENI (D) (Auzolari lanerakoak)	40	2013-03-11	
Fluentsia teknikoak: aplikazioak iraketa-iraketa	24	2013-03-11	
Aplikazio informatikoki iraketa-iraketa (Ezate)	30	2013-03-11	
5ta greko-latinezko iraketa-iraketa (Makrologia)	30	2013-04-08	
5ta greko-latinezko iraketa-iraketa (OC ADA Wad X. Flakko)	40	2013-04-08	
Kalitateko iraketa	30	2013-04-23	
Aplikazio informatikoki eta aplikazioak	40	2013-04-23	
Lehen mailako iraketa-iraketa	40	2013-04-23	
5ta greko-latinezko iraketa-iraketa (ACCER)	30	2013-04-23	
5ta greko-latinezko iraketa-iraketa (5ta greko-latinezko iraketa-iraketa)	30	2013-04-29	
Kalitateko iraketa	24	2013-04-29	

Auzolariak, osteguna 18:00 - 21:00

Makrologia eta informazioa: Tel: 943 50 11 47
Bada, 1001, 07 - 20000 TOLOSALA
E-mail: jberri@tolosaldea.com
Web: www.tolosaldeakom

Inaxio Perurenaren saiakera bertan behera geratu da

I. Terradillos Leiza

Inaxio Perurena harri jasotzaileak bertan behera utzi zuen herenegun 300 kiloko harriarekin egitekoa zuen saiakera. Leitzarra ondoiez, katarroak jota, aurkitzen da, eta ondorioz, marka ezartzeko saiakera atzeratzea erabaki du.

Pasa den astean gaixotu zela adierazi du Perurenak: «Errekuertuko nintzela uste nuen, baina ez da posible izan, eta ehuneko ehunean ez nengoen ez atzeratzea erabaki nuen». 300 kilokoarekin hirugarren saiakera egin nahi du leitzarrek. Bada, oraindik zehazteko badago ere, baliteke otsailaren 10ean egitea saioa. Leitzako Amazabal pilotalekuan.

Bengoetxea VI.ak eta Beroizek garaipenak erdietsiz jarraitzen dute

Xalak lesioaren ondorioz utzitako hutsunea Jaunarenak beteko du, Barriolarekin bikotea osatuz

I. Terradillos

Bengoetxea VI.ak eta Beroizek Lehen Mailako Binakako Pilota Txapelketan areririk gabe jarraitzen dute. Xalak eta Barriolak osaturiko bikotearen aurka jokatu zuten herenegun, eta lapurtarra eta leitzarra 16-15 irabazten ari zirenean partida bertan behera utzi beharra izan zuten Xalaren lesioa tarteko. Bada, azkenean, Bengoetxea eta Beroizentzat izan zen garaipena.

Herenegun jokatu zen txapelketako beste partidari dagokionez, egungo txapeldunek, Titin III.ak eta Merino II.ak, beren hirugarren puntua lortu zuten, Arretxe II.a eta Begino 22-18 mendean hartuta, Logroñoko Adarraga frontoian.

Bestalde, Xalak utzitako hutsunea Jon Jaunarenak beteko du. Hurrengo ostiralean Berasaluze VIII.a eta Albisuren aurka jokatzeko zuten partida Hendainan, baina ezker izterrean duen zaintiratuaren ondorioz ezin izango du jokatu. Beraz, Binakako Txapelketan laguntzaile izaten duen Abel Barriolarekin batera ariko da Jon Jaunarena. Iaz bigarren mailako txapelketa nagusi guzti-guztiak irabazi zituen pilotari leitzarrek.

Festa polita, Ero Etxe Krosaren harira

Euria egin arren, 700 gaztetxok hartu dute parte lasterketan; antolatzaileek balantze baikorra egin dute

Iñigo Terradillos Tolosa

Eguraldiak batere lagundu ez zuen arren, goiz polita izan zen herenegungoa Tolosan. Ero Etxe elkarteak antolaturiko gaztetxoen lasterketa jokatu zen, eta urtero moduan, ikusmin handia piztu zuen herritarren artean. Lasterketaren antolatzaileak balantze «oso baikorra» egin dute, eta «gustura» geratu dira aurtengokak eman duenarekin.

Tolosako nahiz inguruko herrietako 840 lagun zeuden izena emanda, baina azkenean 700 korrikalarik hartu zuten parte XXVI. Ero Etxe Krosean. Hauek sei mailatan banatuta egin zuten korri Tolosako kaleetan zehar: infantil mutil eta neskek, alebin mutil eta neskek, eta benjamin mutil eta neskek. Ibilbidea ere adinarekin arabera zen, helduek ia hiru kilometroko bidea egin zutelarik eta txikienek, berriaz, kilometro batekoa.

Bada, festa polita bizitu zen goiz osoan zehar, parte hartzaileen saria lortzeko helburuarekin eginiko ahaleginarekin, eta gurasoen eta herritarren animoekin. Proba amaitzean pozik itzuli ziren gaztetxoak euren garaikur eta sariekkin. Lehen postuetako sari banaketan Tolosako Udalararen ordezkari izan zen, eta elkarteak bereziki euren laguntza bai eta lasterketa posible egin duten beste guztiena eskertu nahi izan du.

Beste behin ere, Ero Etxe elkartearen lasterketak izan duen harri ona ikusita, urtean zehar Tolosan izaten diren derrigorrezko hitzordu bilakatu dela ez dago zalantzarik. Jarraipena, beraz, ziurtaturik duen ekimena da gaztetxoek zuzenduriko herri lasterketa.



San Frantzisko pasealekua nahiz ibilbidearen gainerako zatietan herritar ugari elkartu zen lasterketari animoak ematera. J. MUJKA

↓ Saillkapena

INFANTIL MUTILAK

1. Unai Iribar	10:06
2. Iñaki Beitia	10:15
3. Ibai Salaberria	10:20

INFANTIL NESKAK

1. Maria Lasa	07:41
2. Ainhoa Garikano	07:44
3. Izaro Perurena	07:50

ALEBIN MUTILAK

1. Jon Lillo	05:04
2. Xabier Alonso	05:05
3. Eneko Lopez	05:08

ALEBIN NESKAK

1. Maddi Sanchez	05:26
2. Iratxe Martin	05:28
3. Izarne Sarasola	05:34

BENJAMIN MUTILAK

1. Alain Odrizola	04:15
2. Josu Tolosa	04:21
3. Unax Ibarbia	04:22

BENJAMIN NESKAK

1. June Zinkunegi	04:51
2. Lide Goikoetxea	04:54
3. Izaro Arrate	04:57



Esfortzu eta saiakera itzela egin ostean, helmugara iristean poz handia sentitu zuten gaztetxoek. J. MUJKA

**Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



13°
4°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

NATUR HOUSE

Elikaduran eta dietetikan adituak



**Zure giltzurruna
da gehiegikeriak
pairatzen dituen**

ZURE ORGANISMOA GARBITU

Alkatxofa, errefau beltza eta kamamila estraktuek zure organismoa garbitzen laguntzen duten ezaugarriak dituzte; gainera, modu progresiboan, pisua galtzen lagun dezakete.



Kupoi hau ekarri eta LEVANAT PLUS erostean FIBROKI gaileren kaxa bat emango dizugu opari Tolosako Naturhouse dendan (Nafarroa etorbidea, 1 Tel. 943 650 795).

NATUR HOUSE
Elikaduran eta dietetikan adituak



Jarrai gaitzazu Facebook orrialdean
www.facebook.com/Spain.NaturHouse

www.naturhouse.com

* Kupoia 2013ko otsailaren 28ra arte erabili daiteke **HTZT**